



## UDALBATZAREN OSOKO BILKURAREN AKTA

**Batzarra:** Ez-Ohikoa  
**Deialdia:** Lehena  
**Eguna:** 2013/07/04  
**Ordua:** 14.00 – 14.10  
**Lekua:** Izurtzako Udalbatza aretoa

### **Bertaratuak:**

LUIS JOSE BALLARIN ALBERDI jn. (BILDU)  
PEDRO JOSE JAYO GOROSPE. jn. (BILDU)  
NEREA ZARRABEITIA ASUETA. And. (BILDU)  
OSKAR ZARRABEITIA ASUETA. jn. (EAJ-PNV)  
ETOR GORROÑO GEREDIAGA. jn. (EAJ-PNV)

### **Ez bertaratuak:**

PAUL BAÑOS ONAINDIA jn. (BILDU)

**Idazkaria:** David Álvarez Martínez



## **Aztergaiak**

- 1.- Aurreko Akta irakurri, eta ahala badagokio, onartzea.
- 2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.
- 3.- Izurtzako herriaren aldaketa, hala badagokio, onartzea.
- 4.- Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratazio espedientea, hala badagokio, onartzea.
- 5.- Maialen Sarasua zinegotziaren uko egitearen berri jakitea.
- 6.-Erreguak eta Galderak.

## Esan-eginak eta erabakiak

Jarraian, Alkate jaunak, azaroaren 28ko 2568-1986 Errege Dekretu bidez onetsitako Tokiko Erakundeen Antolaketa, Funtzionamendu eta Araubide Juridikoaren Araudiko 90. artikuluan zehaztutakoaren arabera, behar besteko quoruma dagoela egiaztatzeari ekin dio, eta batzordea eratutzat jo da.

### 1.-Aurreko Akta irakurri, eta hala badagokio, onartzea. (2013/05/15 eta 2013/05/29).

Alkateak, batzarrari hasiera eman ondoren, batzordekideren batek akten testuari buruzko adierazpenik egin nahi ote duen galdetu du eta, inork egin ez duenez, aktak bozkatu eta bertaratutako kide guztien aho batez onetsi dira.

### 2.- Udal kudeaketa eta alkatearen dekretuen kontu ematea.

Idazkari jaunak hitza hartu du eta 59tik 87ra Dekretuen berri laburki eman du.

| Zenbakia | Gaia  |
|----------|---|
| 59       | Gastu onarpena.   |
| 60       | Udal materiala erabiltzeko baimena.   |
| 61       | Alegazioak ez onartzea. Hirigintza legalitatea berreskuratzeko proz.            |
| 62       | Obra baimena.   |
| 63       | Obra baimena.   |
| 64       | Kontzertuak egiteko baimena ematea.   |
| 65       | Udal materiala erabiltzeko baimena.   |
| 66       | Gastu onarpena.   |
| 67       | Obra baimena.   |
| 68       | UEMAn udal ordezkaria izendatzea.   |
| 69       | Fidantza itzulketa.   |
| 70       | Gastu onarpena.   |
| 71       | Udal materiala erabiltzeko baimena.   |
| 72       | Udal bideak erabiltzeko baimena.  |
| 73       | 2013ko abenduko aparteko ordainsaria aurreratzea eskatzeko prozedura finkatzea. |
| 74       | Udalan dokumentazio gehigarria aurkezteko epea luzatzea.                        |

|    |  |
|----|--|
| 75 | Egoitz Murgoitiori diru laguntza ematea.   |
| 76 | Kirola sustatzeko diru laguntza ematea.  |
| 77 | T.M.I.G.-n obaria ematea   |
| 78 | Udal materiala erabiltzeko baimena.  |
| 79 | Udal materiala erabiltzeko baimena.  |
| 80 | Udal materiala erabiltzeko baimena.  |
| 81 | 2013ko abenduko aparteko ordainsaria eskatu duten udal langileen aurrerapena onartzea. |
| 82 | Udal materiala erabiltzeko baimena.  |
| 83 | Terraza bat jartzeko baimena.  |
| 84 | Gastu onarpena.  |
| 85 | Gastu onarpena.  |
| 86 | Jaietako kartel lehiaketaren ebazpena.   |
| 87 | Lurzoru, lur-gain eta lur-azpia erabiltzeagatik tasaren kitapena                       |

Osoko bilkura jakinean ipini da.

### **3.- Izurtzako herriaren aldatzea, hala badagokio, onartzea.**

Idazkari jaunak hitza hartu du eta laburki proposamenaren berri eta jarraitu beharreko prozeduraren berri eman du. Horri buruzko aipamenik beste inork ez duenez egin,bozketa egin da, eta aho batez udalbatzak ondorengoa onartu egin du:

Lehenengoa.- Izurtzako udalherriaren herri izena aldatzea Izurzatik Izurtzara.

Bigarrena.-Ebazpen hau BAOn argitaratzea eta INEri jakinaraztea.

### **4.- Etxebizitza tasatuen proiektua idazteko kontratazio espedientea, hala badagokio, onartzea.**

Idazkari jaunak hitza hartu du eta laburki proposamenaren berri eta eman du. Horri buruzko aipamenik beste inork ez duenez egin,bozketa egin da, eta gehiengoz ( aldeko hiru boto-BILDU UT – eta bi abstentzio –EAJ UT-) ondorengoa onartu egin da:

2013ko ekainaren 20an Idazkariak egin zuen txostena ikusita non aipaturiko kontratua esleitzeko jarraitu behar den legeria, prozedura eta hura onartzeko eta esleitzeko eskuduna den organoa azaltzen den .

Kontratu honen esleipena kudeatuko duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoen orria eginda eta espedientera batu direla ikusita

Kontratua aurrera eramateko kreditu nahikoa dagoela ikusita.

Laguntzen duen dokumentazio guztia eta Arlo Publikoko Kontratuentzako testu bateratua onartzen duen azaroaren 14ko 3/2011 EDL-aren 2. xedapen gehigarrian kudeatzen dena ikusita,

## **EBAZTEN DUT**

**Lehenengoa.** Garaunzako etxebizitzaren exekuzio proiektuaren idazketa zerbitzurako egingo den kontratazio espedientea onartzea, publizitatea ez duen prozedura negoziatua jarraituz.

**Bigarrena.** 90.470,02€ko gastua onartzea esandako zerbitzua kontratatzeke, publizitatea ez duen prozedura negoziatua jarraituz. Udal aurrekontuetako gastu 432.642.02 partidaren kontra joango da 2013 urteetarako.

**Hirugarren.** Aurrean esandako zerbitzuaren kontratazio espedientea kudeatuko duten administrazio-baldintza zehatzen agiria eta baldintza teknikoen orria onartzea.

**Laugarren.** Honako enpresa edo pertsonari eskaintzak eskatzea: D. Juan José Peralta Gracia y D. Andrés Ayesa Pascual

### **5.- Maialen Sarasua zinegotziaren uko egitearen berri jakitea.**

Idazkari jaunak hitza hartu du eta esan du maiatzaren 9an Maialen Sarasua andreak bere zinegotzi karguaren uko-agiria Udaletxeko Erregistro Jeneralean aurkeztu zuela.

Hauteskunde-legeriaren arabera jarraitu behar den prozedura honako hau da:

Osoko-Bilkurak uko-agiriaren berri jasotzen du eta, jarraian, akordioaren egiaztatzea hauteskunde-batza zentralari bidali behar zaio, honetan agertzen dela Udalaren ustez zein litzateke betegabeko postua bete beharko lukeen pertsonaren izena.

Aurrekoa kontuan hartuta osoko bilkura aho batez honako hau onartu du:

Lehenengoa.- Maialen Sarasua Cendoya andreak aurkeztutako bere zinegotzi eta bere beste karguaren uko-agiriaren berri jasotzea.

Bilgarrena.- Honako akordioa hauteskunde-batza zentralari bidali Mukel Zarrabeitia Asueta jaunaren alde agiri benetakotzailea luzatu dezan , EAE-ANV hauteskunde zerrendetako bostgarren lekua betetzen duena 2007. urtean ospatu ziren udal-hauteskundeetan.

## 6.-Erreguak eta Galderak.

Ez dira egon.

Horrenbestez, aztergai gehiago ez dagoenez, bilkura amaitutzat jotzen da, eta bertan aztertutakoa eta hartutako erabakiak jasotzeko honako akta hau egin dut, Alkate jaunaren oniritziarekin.

Idazkaria



O. E.  
Alkatea

